burutzea. Azpikontratazio horrek azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritako betebeharrak izango ditu.

**20. artikulua.– Arautegi aplikagarria.**

Deialdia oinarri espezifiko hauek eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren dirulaguntzak lehiaketa bidez ematea arautzen duten oinarri orokorrek arautzen dute. Horiek Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu eta 2012ko martxoaren 26ko ALHAOn argitaratu ziren, astelehenarekin.

**21. artikulua.– Xedapenak interpretatzea eta garatzea.**

Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi honetako oinarri espezifikoak interpretatzeko eta beharrezkoak diren ebazpenen bidez garatzeko, behar bezala aplika daitezen.

**22. artikulua.– Bateraezintasunak.**

Dirulaguntzen eskaera egin ondoren beste laguntzaren bat lortzen bada, berehala jakinarazi behar zaio idatziz Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari eta horrek emandako dirulaguntzen zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposatu ahal izango du.

Deialdi honen bidez lortutako laguntzari besterik gehituko balitzaio, zernahi izan haren izaera (publikoa edo pribatua) edo hura ematen duen organoa, haien batuketak ezin izango luke diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostua baino gehiago egin.

que se citan en las mismas, quedando sometida dicha subcontratación a las obligaciones que establece el artículo 29 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre (Ley General de Subvenciones)

**Artículo 20.– Normativa aplicable.**

Esta Convocatoria se rige por las presentes bases específicas y las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento de Promoción Económica y Administración Foral de la Diputación Foral de Álava, aprobadas mediante Decreto Foral 17/2012, del Consejo de Diputados de 6 de marzo, publicado en el BOTHA del lunes 26 de marzo de 2012.

**Artículo 21.– Interpretación y desarrollo de disposiciones.**

Se faculta al Diputado Foral titular del Departamento Promoción Económica y Administración Foral para la interpretación de las Bases Específicas de la presente Convocatoria, y el desarrollo, mediante las correspondientes resoluciones, de cuantas disposiciones sean necesarias para su correcta aplicación.

**Artículo 22.– Incompatibilidades.**

La obtención de alguna ayuda concurrente con posterioridad a la entrega de la solicitud de las ayudas, deberá ser notificada inmediatamente y por escrito al Servicio de Secretaría Técnica de Economía, el cual podrá proponer la modificación de la cuantía o condiciones de la ayuda concedida.

En el caso de que a una ayuda concedida a través de la presente Convocatoria se sumaran otra u otras, cualesquiera que fuera su naturaleza y el órgano que las concediere, la cuantía de las ayudas recibidas de las distintas entidades concedentes de subvención públicas o privadas, no podrá superar el coste de la actividad o proyecto subvencionado.

## EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**1050**

**59/2014 ERABAKIA, otsailaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena, onartu egiten duena Arabako zentro eta erakundeen prestakuntzarako laguntzen 2014ko deialdia**

Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak dituen eskumen eta eginkizunen artean hauxe dago: Arabako ikastegietako eta bestelako erakundeetako prestakuntzarako programak eta laguntzak planak kudeatzea eta izapidetzea, eta Arabako Lurralde Historikoko Lanbide Heziketako ikastegiek, unibertsitate fakultate eta zentroek eta irabazteko asmorik gabeko elkarteek eta erakundeek prestakuntzarako ekintzak egin ditzaten sustatzea eta bultzatzea.

Helburu horrekin, egokia irizten zaio "ikastegietan eta irabazteko xederik gabeko bestelako erakundeetan prestakuntza emateko laguntze programa"rako deialdia egiteari. Horren helburu orokorra, lana duen populazio aktiboaren kualifikazio eta birprofesionalizaziora eta langabezian daudenak laneratzera zuzendutako prestakuntza ekintzak bultzatzea da. Hori guztia, etengabe aldatuz eta berrituz doan lan merkatu honek eskatzen dituen ezagutzak edo prestakuntza egokitu eta lortu ahal izateko. Laguntza programa honen barruan prestakuntza sustatzeko bestelako laguntzak ere sartu ahal izango dira, hala nola zabalkunde jardunaldiak eta azterlan diagnostikoak.

Horregatik guztiagatik, Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

1.- Arabako ikastegietan eta bestelako erakundeetan prestakuntza emateko laguntzen 2014ko deialdi publikoa onartzea. Honi erantsitako agiriak eta martxoaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 17/2012 Foru Dekretuaren bidez (ALHAOren 2012ko 36. zenbakian argitaratuta, martxoaren 26an) onartutako oinarri orokorrek arautuko dute deialdi hau.

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y ADMINISTRACIÓN FORAL

**1050**

**ACUERDO 59/2014, del Consejo de Diputados de 18 de febrero, que aprueba la convocatoria de ayudas a la Formación en Centros y otras Entidades de Álava, para el ejercicio 2014**

Entre las competencias y funciones a desarrollar por el Departamento de Promoción Económica y Administración Foral figuran la gestión y tramitación de programas y planes de ayudas a la formación en Centros y otras Entidades de Álava, impulsando e incentivando la realización de acciones formativas por parte de Centros de Formación Profesional, Facultades y Centros Universitarios y Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Álava.

A tal fin, se estima oportuno convocar el «Programa de Ayudas a la Formación en Centros y otras Entidades sin ánimo de lucro», cuyo objetivo general es impulsar la realización de acciones formativas orientadas a la cualificación y reprofesionalización de la población activa ocupada, así como a la inserción laboral de la población desempleada. Todo ello, con objeto de adecuar y/o adquirir los conocimientos o cualificación demandados en un mercado de trabajo continuamente sujeto a cambios e innovaciones. Dentro de este Programa de Ayudas también tendrán cabida otras ayudas de apoyo a la formación, como las jornadas de difusión y los estudios-diagnóstico.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Promoción Económica y Administración Foral y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy

ACUERDO

1.- Aprobar, dentro del marco presupuestario disponible, la convocatoria pública de Ayudas para la Formación en Centros y otras Entidades de Álava 2014, que se regirá por el documento anexo y las Bases Generales aprobadas mediante Decreto Foral 17/2012, del Consejo de Diputados de 6 de marzo, publicado en el BOTHA nº 36 del 26 de marzo de 2012.

2.- Erabaki honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2014rako aurrekontuaren 30.5.02.07.00.461.00.01 partidaren kontura ordainduko dira, xedapen erreferentzia honekin:

3.- Deialdiak 500.000 euroko hornidura du.

4.- Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 18a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ekonomia Sustapenaren zuzendaria, BLANCA LACUNZA BLAZQUEZ.

**ERANSKINA**

**ARABAKO IKASTEGIETAN ETA BESTELAKO ERAKUNDEETAN PRESTAKUNTZA EMATEKO LAGUNTZAK**

**2014ko deialdiaren oinarriak**

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.- Xedea eta aplikazio eremua.**

Arabako ikastegi eta bestelako erakundeetan prestakuntza emateko laguntzetarako deialdiaren helburua da Arabako prestakuntza zentro eta irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeek prestakuntzarako ekintzak egin ditzaten sustatu eta bultzatzea, baldin eta prestakuntza zentro eta irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakunde horien helburua hauxe bada: lana duten nahiz langabezian dauden langile aktiboen gaitasuna eta kualifikazioa hobetzea eta gure ekonomiaren lehiakortasuna areagotzea.

Laguntza programa honek diruz lagundu ditzakeen ekintzak Arabako lurralde historikoan garatu behar dira.

**2. artikulua.– Prestakuntzarako ekintza motak.**

2.1.- Prestakuntzarako ekintzak hiru motatakoak izan daitezke:

I.- Arautu gabeko prestakuntza ekintzak: ikastaroak biztanle aktiboentzat oro har, nola lana dutenentzat hala lanik gabe daudenentzat.

II.- Zabalkunde jardunaldiak

III.- Prestakuntza beharrizanei buruzko azterlan diagnostikoak.

2.2.- Prestakuntza ekintzek jorratu beharreko gaiak zuzenean egon beharko dira lotuta Arabako sistema produktiboarekin eta Arabako enpresen eta lan merkatuaren langile beharrizanekin. Beraz, kultura, gizarte ongizatea, aisia eta astialdia eta beste arlo batzuk ez dira landuko prestakuntza ekintzetan, eta kanpoan geratuko dira, halaber, administrazio publikoetako funtzionarioentzako edo lanpostu nahiz kargu publikoa dutenentzako prestakuntza ekintzak.

**3. artikulua.- Erakunde onuradunak.**

3.1.- Deialdi honetan, onuraduntzat joko dira jarraian azaltzen diren erakunde motak, baldin eta sozietatearen egoitza Araban alta emanda badute edo gutxienez ere egoitzaren bat edo zerbitzu zentroren bat lurralde horretan badute:

a) Lanbide heziketako ikastetxeak.

b) Unibertsitate fakultateak eta eskolak.

c) Irabazteko xederik gabeko elkarteak, fundazioak edo bestelako erakundeak.

3.2.- Erakunde onuradunek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izan beharko dituzte, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza jasotzeko unean.

3.3.- Ezin izango dira onuradun izan beren onartze prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizketa egiten duten erakundeak, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Era berean, ezin izango dira lehiatu, dagokien zigorrak ezarritako denboran, sexuagatik bereizketa egiteagatik zigor administratibo edo

2.- Las subvenciones reguladas mediante este Acuerdo se abonarán con cargo a la partida 30.5.02.07.00.461.00.01 del Presupuesto 2014 de la Diputación Foral de Álava, con referencia de contraído 14.1.14. 105.503/000.

3.- La dotación de la convocatoria asciende 500.000 euros.

4.- La presente convocatoria se publicará en el BOTHA y entrará en vigor a partir del día siguiente de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2014.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Promoción Económica y Administración Foral, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Directora de Promoción Económica, BLANCA LACUNZA BLAZQUEZ.

**ANEXO**

**AYUDAS A LA FORMACIÓN EN CENTROS Y OTRAS ENTIDADES DE ÁLAVA**

**Bases de la Convocatoria de 2014**

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.– Objeto y ámbito de aplicación.**

El objeto de la Convocatoria de Ayudas a la Formación en Centros y otras Entidades de Álava, es impulsar e incentivar la realización de acciones formativas por parte de Centros de Formación y Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro de Álava, que tengan por objeto la mejora de las competencias y cualificaciones de la población activa en general, tanto ocupada como desempleada, así como el incremento de la competitividad de nuestra economía.

Las acciones que puedan resultar subvencionadas por este Programa de Ayudas, deberán ser desarrolladas en el Territorio Histórico de Álava.

**Artículo 2.– Tipos de acciones formativas.**

2.1.- Las acciones formativas podrán ser de tres tipos:

I.- Acciones de Formación No Reglada: cursos para la población activa en general, tanto ocupada como desempleada.

II.- Jornadas de difusión.

III.- Estudios-diagnóstico de necesidades formativas.

2.2.- La temática de las acciones formativas deberá estar directamente ligada al sistema productivo alavés y atender las necesidades del mercado de trabajo y de las empresas alavesas, quedando excluida la formación correspondiente a los ámbitos de la cultura, el bienestar social, el ocio y tiempo libre u otros, así como la formación dirigida al personal funcionario de las administraciones públicas o con empleo o cargo público.

**Artículo 3.– Entidades Beneficiarias.**

3.1.- A efectos de la presente Convocatoria, tendrán la consideración de beneficiarias los siguientes tipos de Entidades, siempre y cuando su domicilio social esté dado de alta en Álava o cuenten, al menos, con una sede o centro de prestación de servicios en dicho territorio:

a) Centros de Formación Profesional.

b) Facultades y Escuelas Universitarias.

c) Asociaciones, Fundaciones u otros entes sin ánimo de lucro.

3.2.- Las entidades beneficiarias deberán hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con Hacienda y con la Seguridad Social en los términos estipulados en el Decreto Foral 58/2004, con carácter previo tanto al momento de la resolución de concesión como al del abono de la subvención.

3.3.- No podrá tener la condición de beneficiaria aquella entidad que discrimine por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento de conformidad con lo establecido en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del Parlamento Vasco, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Igualmente, no podrán concurrir, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las personas físicas o jurídicas

penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz debeku horrekin zigortutakoak ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskadiko Ogasuna antolatzen duten printzipioen Legearen testu bateratua onartzen duenak, 50.5 artikuluan jasotzen duen bezalaxe (Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berditasunerakoak, bere amaierako seigarren xedapenean idatzita utzi zuen moduan).

3.4.- Irabazteko asmorik gabeko elkarte, fundazio edo bestelako erakundeek agiri bidez egiaztatu beharko dute irabazteko xederik gabeko erakundeak direla. Horretarako, dagokien administrazio erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dute.

**4. artikulua.– Deialdiaren hornidura.**

4.1.- Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa 500.000 euro da. Diru kopuru horretatik 440.000 euro prestakuntza ikastaroetarako izango dira, 50.000 euro jardunaldietarako eta 10.000 euro azterlan diagnostikoetarako.

4.2.- Aurreko diru kopuruetatik, ehuneko 60 erabiliko da Lanbide Heziketako ikastetxe arautuek eta unibertsitate fakultateek eta eskolek aurkeztutako eskaerei erantzuteko.

Prestakuntza ekintza mota bakoitzaren barruan, soberakinik egonez gero, LHko ikastetxe eta unibertsitate eskolen taldean nahiz irabazteko asmorik gabeko elkarte eta erakundeen taldean, soberakin hori beste taldearen eskaeretarako dirulaguntzak ematera bideratuko da, oinarrietako gainerako baldintzak betetzen diren neurrian.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa egin eta gero, soberakinik geratzen baldin bada prestakuntza ekintza motaren batean, soberakin hori ikastaroetara, jardunaldietara edo azterlanetara bideratuko da, lahentasun hurrenkera horretan, eta prestakuntza ekintza bakoitzaren barruan, lehenik LHko ikastegietara eta unibertsitate eskoletara.

II. KAPITULUA

ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK

**5. artikulua.– Laguntza jaso dezaketen jarduerak.**

5.1.- Biztanleria aktiboari, okupatuari zein langabetuari, zuzendutako prestakuntzako ekintzek jaso ahal izango dute laguntza. Ekintza horiek lan merkatuaren beharrak eta eskariak bete behar dituzte, eta lehentasunez honakoak betetzera egongo dira bideratuta:

- langabetuen enplegagarritasuna eta lana duten langileen kualifikazioa hobetzea.

- Arabako enpresek eskatutako jakintza, metodo edo teknikei buruzko gaitasun profesionala eskaintzea.

- teknologia berrien sarrera erraztea eta ekoizpen sistema orokorraren lehiakortasuna hobetzea.

Era berean, lanbide heziketako ikastetxeetako eta unibertsitate fakultateetako eta eskoletako prestatzaileak gaitzeko ekintzek ere laguntza jasoko dute, baldin eta teknologia eguneratzeko edo enpresa kudeaketa hobetzeko gaien ingurukoak badira eta aurreikusita badago prestakuntza ikastaro horiek gero zentroan ematea.

5.2.- Ikastaro batek dirulaguntza jaso ahal izan dezan, gutxienez 5 pertsona izena emanda egon beharko dira hartan. Baldintza hau betetzen ez bada, galdu egingo da dirulaguntza izateko eskubidea.

5.3- Kanpoan utziko dira honako prestakuntza ekintzak:

- beren gaia dela eta, Arabako ekonomia edo lan jardueraren lehiakortasuna hobetzen nahiko laguntzen ez dutenak.

- gehien bat izaera teorikoa edo orokorra duten ekintzak

- erakunde eskatzaileetako langileen barne prestakuntza helburu dutenak, 5.1 paragrafoan azaldutakoak izan ezik

- erakunde eskatzailearen edo berorren partaideen xedeekin eta berezko jarduerarekin lotuta ez daudenak

- arautukako hezkuntza eskaintzan sartuta dauden prestakuntza ekintzak eta hezkuntza sistemak onartutako titulazio ofiziala ematen dutenak

sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, tal y como se recoge en el artículo 50.5 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda de Euskadi, según redacción dada por la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del Parlamento Vasco, para la Igualdad de Mujeres y Hombres

3.4.- Las Asociaciones, Fundaciones u otros entes sin ánimo de lucro deberán acreditar documentalmente su carácter de entidad sin ánimo de lucro. Para ello, deberá aportar la inscripción en el Registro administrativo correspondiente.

**Artículo 4.– Dotación de la Convocatoria.**

4.1.- La cuantía máxima de las subvenciones a conceder en el marco de la presente convocatoria es de 500.000 euros, de los cuales 440.000 se destinarán a cursos de formación, 50.000 a jornadas y 10.000 a estudios-diagnóstico.

4.2.- De los anteriores importes, un 60 por ciento se destinará a atender solicitudes presentadas por los Centros reglados de Formación Profesional y las Facultades y Escuelas Universitarias.

Dentro de cada tipo de acciones formativas, si se produjera algún remanente, bien sea en el grupo de Centros de FP y Escuelas Universitarias o bien en el grupo de Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro, dicho remanente se destinará a subvencionar solicitudes del otro grupo, en la medida en que se cumplan el resto de condiciones de las Bases.

Si una vez realizado lo señalado en el párrafo anterior todavía quedara algún remanente en alguno de los tipos de acciones formativas, dicho remanente se destinaría a cursos, jornadas o estudios, por este orden de preferencia, y, dentro de cada acción formativa, primero a Centros de FP y Escuelas Universitarias.

CAPITULO II

ACCIONES DE FORMACIÓN NO REGLADA

**Artículo 5.– Actividades susceptibles de ayuda.**

5.1.- Será susceptible de ayuda la realización de acciones formativas dirigidas a la población activa en general, tanto ocupada como desempleada, que cubran las necesidades y demandas del mercado de trabajo y que vayan encaminadas prioritariamente a:

- mejorar la empleabilidad de las personas desempleadas y la cualificación de las personas trabajadoras que están ocupadas.

- proporcionar una capacitación profesional sobre conocimientos, métodos o técnicas demandadas por la empresa alavesa.

- facilitar la introducción de nuevas tecnologías y mejorar la competitividad del sistema productivo en general.

Así mismo serán susceptibles de ayuda las acciones formativas dirigidas a la capacitación y formación del personal formador de los Centros de Formación Profesional y de las Facultades y Escuelas Universitarias, siempre que aborden temáticas de actualización tecnológica o de mejora de gestión empresarial, que se prevea impartir posteriormente en los cursos de formación del Centro.

5.2.- Para que un curso pueda ser subvencionable, el número mínimo de personas inscritas en él deberá ser de al menos 5 personas. En el supuesto de que no se cumpla este requisito se perderá el derecho a la subvención.

5.3- Quedarán excluidas aquellas acciones formativas que:

- por su temática, no contribuyan suficientemente a la mejora competitiva de la actividad económica o laboral en Álava.

- tengan una concepción prioritariamente teórica o generalista.

- tengan por finalidad la formación interna del personal trabajador de las Entidades solicitantes, salvo aquellas que se especifican en el apartado 5.1. anterior.

- no guarden relación con los objetivos y actividad propia de la entidad solicitante o de sus partícipes.

- formen parte de la oferta educativa Reglada, así como aquellas que otorguen titulación oficial reconocida por el sistema educativo.

- hizkuntza ikastaroak

- Balioespen Batzordearen iritziz deialdiaren helburu orokorraren barruan kokatzen ez diren guztiak.

**6. artikulua.– Jarduerak egiteko aldia eta prestakuntza ikastaroen gehieneko eta gutxieneko iraupena.**

6.1.- Prestakuntza ekintzak 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko azaroaren 15era bitartean (biak barne) egin beharko dira osorik edo zati batean.

Hala ere, ikasturteen ohiko jarduna kontuan izanik, onartuko da prestakuntza ekintzak 2013ko urriaren 1etik aurrera hastea, baldin eta haien irakaskuntza jardueraren zati bat 2014an egiten bada.

Ikastaroaren zati bat 2013ko urriaren 1etik 2014ko azaroaren 15era arteko gehieneko epe horretatik kanpo egiten bada, epe horren barruan emandako orduak besterik ez da diruz lagunduko, eta ikastaroaren ordu guztiak kontuan izanda hainbanatu egingo da dirulaguntza.

6.2.- Diruz lagundu beharreko prestakuntza ekintzen gehieneko iraupena, arau orokor gisa, 100 ordukoa izango da. Prestakuntza edo kualifikazio maila apaleko langabeentzat edo aspalditik lanik gabe daudenentzat egiten diren ikastaroek, edota lanpostu jakin baterako prestatzeko nahiz lan merkatura itzultzeko egiten direnek, muga hori gorago izan dezakete: gehienez 300 ordu.

Salbuespenez iraupen muga horiek berraztertu egin ahal izango dira, baldin eta garrantzia berezia dela eta zein Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzaren aburuz, ordu kopuru handiagoa behar denean eskuratu nahi diren helburuak lortzeko.

6.3.- Diruz lagundu beharreko prestakuntza ekintzen gutxieneko iraupena 10 ordukoa izango da.

**7. artikulua.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.**

7.1.- Diruz lagundu ahal izango dira, bakar-bakarrik, ondoko gastu hauek:

a) Irakasle gastuak.

b) Ikastaroa aurrera eramateko behar-beharrezkoa den materialaren gastuak.

c) Ikastaroaren berariazko publizitate gastuak.

d) Ondasunak (intalazioak, ekipoak, …) alokatzeko gastuak, ikastaroa egiteko espresuki erabiltzen baldin badira.

e) Ikastaroarekin loturik dauden gastu orokorrak (argindarra, ura, berogailua, telenonoa, etab.) eta kudeaketa gastuak.

Gastu orokorrek eta kudeaketa gastuek, idatz zati honetako a), b) eta c) letretan jasotzen diren gastuen baturaren % 10eko muga izango dute.

7.2.- Erakunde onuradunek jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) diruz lagundu daitekeela ulertuko da, erakunde haiek zerga aldetik konpentsatu ezin duten neurrian. Horretarako eta aplikagarria den kasuetan, erreferentzia bezala hartuko da aurreko azken ekitaldiko behin betiko prorrata. Zalantzarik izanez gero, BEZa ez da diruz laguntzekoa izango, nola eta erakunde onuradunak ez duen frogatzen horren kenkaria ezin dezakeela egin.

**8. artikulua.– Ikastaroko diruz lagundu daitekeen aurrekontua.**

8.1.- Diruz lagundu daitekeen aurrekontua ikastaroaren iraupenaren arabera ondoko moduluak aplikatuz kalkulatuko da:

- 100 ordura arteko ikastaroak (kopuru hori barne): 100 euro orduko

- 101 ordutik aurrerako ikastaroak: 84 euro orduko

8.2.- Modulu horiek ehuneko 20 gehiago luzatu ahal izango dira, baldin eta ikastaroa emateak ondokoak badakartza:

- Funtzionamendu gastu handia. Horren ondorioetarako, ikastaro batek funtzionamendu gastu handia duela ulertuko da baldin eta erabili beharreko material suntsikorren edo ekipamendu espezializatuaren kostua irakasleen kostua baino % 60 handiagoa bada, gutxienez. Hori frogatzeko, erakunde onuradunak ikastaroaren aurrekontu xehakatua aurkeztuko du.

- los cursos de idiomas.

- todas aquellas que a juicio de la Comisión de Valoración no se inscriban en el objetivo general de la convocatoria.

**Artículo 6.–Periodo de realización y duración máxima y mínima de los cursos de formación.**

6.1.- Las acciones formativas deberán ser realizadas, en todo o en parte, en el periodo de tiempo comprendido entre el 1 de enero de 2014 y el 15 de noviembre de 2014, inclusive.

No obstante, teniendo en cuenta la práctica habitual de los cursos lectivos, se aceptará que las acciones formativas puedan comenzar dentro del periodo comprendido a partir del 1 de octubre de 2013, inclusive, siempre y cuando desarrollen parte de su actividad docente durante el año 2014.

En el supuesto de que una parte del curso se desarrollara fuera del periodo máximo posible -1 de octubre de 2013 al 15 de noviembre de 2014-, únicamente se considerará subvencionable el número de horas impartidas dentro de dicho plazo, procediéndose a efectuar un prorrateo con respecto al número total de horas del curso.

6.2.- La duración máxima de las acciones formativas a subvencionar será, con carácter general, de 100 horas. En el caso de cursos dirigidos a personas desempleadas con bajo nivel de formación o cualificación o personas desempleadas de larga duración y/o diseñados para la capacitación en un puesto de trabajo concreto o para su reinserción en el mercado de trabajo, el límite general se podrá ampliar hasta un máximo de 300 horas.

Excepcionalmente estos límites se podrían revisar en aquellos casos que, por su especial relevancia y a juicio de la Dirección de Promoción Económica, se precise de un mayor número de horas para poder llevar a cabo los objetivos perseguidos.

6.3.- La duración mínima de las acciones formativas a subvencionar será de 10 horas.

**Artículo 7.– Gastos subvencionables.**

7.1.- Serán gastos subvencionables únicamente los siguientes:

a) Gastos de profesorado.

b) Gastos de material estrictamente necesario para el desarrollo del curso.

c) Gastos de publicidad específicos del curso.

d) Gastos de alquiler de bienes (instalaciones, equipos, …), cuando se utilicen expresamente para la realización del curso.

e) Gastos generales (luz, agua, calefacción, teléfono, etc…) y de gestión relacionados con el curso.

Los gastos generales y de gestión tendrán como límite un 10 por ciento de la suma de los gastos recogidos en las letras a), b) y c) de este apartado.

7.2.- El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) soportado en el coste por las entidades beneficiarias, se considerará subvencionable en la medida en que no pueda ser compensado fiscalmente por estas. A estos efectos y en los casos que resulte aplicable, se tomará como referencia la prorrata definitiva del ejercicio inmediato anterior. En caso de duda, el IVA no será subvencionable, salvo que la entidad beneficiaria pueda demostrar efectivamente que no se lo puede deducir.

**Artículo 8.– Presupuesto subvencionable por curso.**

8.1.- El presupuesto subvencionable se calculará aplicando los siguientes módulos, en función de la duración del curso:

- Para cursos de hasta 100 horas de duración, inclusive: 100 euros/hora

- Para cursos a partir de 101 horas de duración: 84 euros/hora

8.2.- Dichos módulos se podrán incrementar hasta un 20 por ciento más, cuando la impartición del curso requiera:

- un alto nivel de gasto de funcionamiento. A estos efectos se entenderá que un curso presenta un nivel alto de gasto de funcionamiento, cuando para su realización sea precisa la utilización de material fungible o equipamiento especializado, cuyo coste supere al menos en un 60 por ciento al del profesorado. Para su justificación la entidad beneficiaria presentará un presupuesto desglosado del curso.

- irakasle espezializatuak kontratu behar direnean, baldin eta horrek berekin badakar ekintzaren gainkostu nabarmena (antzeko ikastaroen batez bestekoa baino ehuneko 50 gehiago). Behar hori egoki arrazoituko da, zentro edo erakunde eskatzailearen zuzendariak edo kudeatzaileak izenpetutako txosten bidez.

**9. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak.**

9.1.- Ikastaro bakoitzeko emango den laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 70 izango da, ondoko muga hauekin:

- diruz lagundu daitezkeen gastuak ken aurrez jotako diru sarrerak.

- 15.000,00 euro.

9.2.- Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatu beharreko ehunekoa % 80 izango da, ikastaro bakoitzeko 20.000 euroko mugarekin, ondoko kasu hauetan:

- prestakuntza edo kualifikazio maila apaleko langabetuentzako eta/edo aspalditik langabezian daudenentzako ikastaroak

- lanpostu jakin batean prestatzeko diseinatutako ikastaroak, laneratzeko aukera argiak eskaintzen badituzte.

- laneratzeko zailtasun bereziak dituzten edo talde behartsuetakoak diren pertsonak ikasle dituzten ikastaroak.

Kasu horietan guztietan, ikastaroaren justifikazioa ikusirik ondorioztatzen baldin bada ikasleen aurreikuspenak ez direla bete, artikulu honetako 1. idatz zatiko gehieneko muga aplikatuko da.

9.3.- Ez da dirulaguntzarik emango diruz lagundu daitezkeen gastuak 1.000 euro baino gutxiagokoak diren ikastaroetarako. Ikastaroa burutu eta gero, esandako gastuen zenbatekoa 1.000 euro baino txikiagoa izatekotan, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da, eta hura ez da ordainduko.

9.4.- Lanbide Heziketako ikastegien eta unibertsitate fakultate edo eskolen kasuan, erakunde onuradun bakar bati, ikastaro baterako edo gehiagotarako, eman ahal zaion dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du formula hau aplikatzearen emaitza gainditu:

hornidura baliagarria X ikastegiko ikasle kop. 2013-2014an

deialdi honetarako eskaera egin duten ikastegietako irakaskuntza arautuko ikasleen batura

**10. artikulua.- Ikastaro bakoitzerako aurkeztu beharreko agiriak.**

Behar bezala bete beharko dira dirulaguntza eskatzeko inprimakiak.

Gainera, ondoko agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Eman beharreko ikastaroaren edukia azaltzen duen txostena
- Haren egitaraua.
- Irakasleen curriculumak

**11. artikulua.- Aukeraketa eta balorazio irizpideak**

Ondoko balorazio irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Ikastaroaren justifikazioa (0 – 50 puntu), ondoren bezala xehatuta::

- Erakunde eskatzaileak aurkeztutako funts eta arrazoietan oinarritutako balorazioa: 0 - 35 puntu

- Prestakuntza hori eskatzen duen enpresa jakinik badagoen (puntu hau agiri bidez frogatu beharko du erakunde eskatzaileak): 5 puntu

- 2014ko maiatzaren 1a baino lehenago hasitako ikastaroak: 10 puntu.

Kasu honetan, "Prestakuntza ekintzaren hasieraren ziurtapena" aurkeztu beharko da ikastaroaren hasiera egunaren edo –hala badagokio– dirulaguntza eskaera aurkezten den egunaren ondoko 10 egun baliodunen barruan.

b) Gaiak (0 – 15 puntu), ondoko tipologia honen arabera:

- Industria arloarekin lotura duten ikastaroak: 15 puntu.

- Nazioarteko merkataritza eremuarekin, ekonomia eta/edo finantza kudeaketarekin edo informatika aplikazioekin loturiko ikastaroak: 10 puntu

- la contratación de profesorado especializado que implique un sobre costo significativo de la acción (50 por ciento superior a la media de cursos similares). Esta necesidad deberá ser justificada convenientemente, mediante un informe firmado por el Director o Gerente del Centro o Entidad solicitante.

**Artículo 9.– Cuantías y límites de las ayudas.**

9.1.- La cuantía de ayuda a conceder por cada curso será un 70 por ciento del presupuesto subvencionable con los siguientes límites:

- gastos subvencionables menos ingresos previstos.

- 15.000,00 euros.

9.2.- El porcentaje a aplicar al presupuesto subvencionable será el 80 por ciento del presupuesto subvencionable, con un límite de 20.000 euros por curso, en los siguientes casos:

- cursos dirigidos a personas desempleadas con bajo nivel de formación o cualificación y/o personas desempleadas de larga duración

- cursos diseñados para la capacitación en un puesto de trabajo determinado, con expectativas concretas de inserción en el mercado de trabajo.

- cursos que cuenten entre su alumnado con personas pertenecientes a colectivos desfavorecidos o con dificultades específicas de inserción laboral.

En todos estos casos, si a la vista de la justificación del curso se dedujera que las previsiones del alumnado no se han cumplido, se aplicará el límite máximo del apartado 1 de este artículo.

9.3.- No se concederán subvenciones para cursos con unos gastos subvencionables inferiores a 1.000 euros. Una vez realizado el curso, en el caso de que el importe de dichos gastos sea inferior a 1.000 euros se perderá el derecho a la subvención y no se abonará la misma.

9.4.- En el caso de Centros de Formación Profesional, y de Facultades y/o Escuelas Universitarias, la subvención máxima a otorgar a una sola entidad beneficiaria, por uno o varios cursos, no podrá superar el límite resultante de aplicar la fórmula:

Dotación disponible X nº alumnos/as del Centro en 2013-2014

sumatorio del alumnado de formación reglada de los centros solicitantes en la presente convocatoria

**Artículo 10.– Documentación a presentar por cada uno de los cursos.**

Se deberá cumplimentar correctamente los impresos de solicitud de la subvención.

Además, deberá presentarse la siguiente documentación:

- Informe explicativo sobre el contenido del curso a impartir
- Programa del mismo.
- Currículum del profesorado

**Artículo 11.– Criterios de selección y valoración**

Serán criterios de valoración los siguientes:

a) Justificación del curso (0 – 50 puntos), con el siguiente desglose:

- Valoración en base a los fundamentos y motivos aportados por la entidad solicitante: de 0 a 35 puntos

- Existencia de empresas concretas que soliciten esa formación, hecho que deberá ser justificado documentalmente por la entidad solicitante: 5 puntos

- Cursos iniciados con anterioridad al 1 de mayo de 2014: 10 puntos.

En este supuesto, se deberá aportar dentro del plazo de 10 días hábiles siguientes a la fecha de iniciación del curso o, en su caso, desde la fecha de presentación de la Solicitud de subvención, la "Certificación de Inicio de acción formativa".

b) Temática (0 – 15 puntos), según la siguiente tipología:

- Cursos relacionados con el área industrial: 15 puntos

- Cursos relacionados con el área de comercio internacional, de gestión económica y/o financiera, de aplicaciones informáticas: 10 puntos

- Bestelako ikastaroak: 5 puntu

c) Aurkeztutako eskaeraren kalitatea (0 – 30 puntu)

Atal honen barruan, honela baloratuko da:

- 10 puntutaraino: Aurkeztutako eskabide inprimakiak beteta dauden kalitate mailaren arabera.

- 5 puntutaraino: Gizarte Segurantzarekin eta administrazio eskudunaren Ogasunarekin egunean egotearen ziurtagiriei dagokien dokumentazioa epe eta era egokietan aurkezteagatik, sozietatearen egoitza Arabatik kanpoan duten erakundeentzat.

- Gainerako 15 puntuak, aurreko 10. artikuluan jasotzen diren agiriak epe eta era egokietan aurkeztu diren kontuan hartuta emango dira.

d) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena (0 – 5 puntu)

5 puntu emango zaizkie emakumeen proportzioa ikasle guztien kopuruaren % 40 eta % 60 arteko mugen artean (biak barne) izatea sustatzen duten ikastaroei.

Oinarriak onartu eta gero hasten diren ikastaroetan, emakumeen parte-hartzearen aurreikuspena jaso beharko da eskabidean. Aurreikuspen hori ez betetzekotan, berdintasunerako pizgarri moduan emandako puntuazioa dirulaguntza ematerakoan erabakigarria izan bada, baliogabetu egingo da dirulaguntza.

Oinarriak onartu baino lehenago hasi diren ikastaroetan, ikasle guztien kopuruarekiko emakumeen benetako proportzioa zehaztu beharko da ikastaroaren hasieraren ziurtagirian.

III. KAPITULUA

ZABALKUNDE JARDUNALDIAK

**12. artikulua.– Laguntza jaso dezaketen jarduerak.**

Dirulaguntza jaso ahal izango da teknologia berriekin, kudeaketa tresnekin, industria jarduerarekin edo industriari atxikitako zerbitzuekin loturik dauden zabalkunde jardunaldiak egiteko.

**13. artikulua.– Jarduerak egiteko epealdia.**

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko azaroaren 15era bitartean egin beharko dira.

**14. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**

14.1.- Bakar-bakarrik, ondoko gastu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

a) Txostengilearen gastuak:

- Txostengintzako lansariak

- Joan-etorri, mantenu eta ostatatze gastuak, horrelakorik izanez gero, eta ondoko muga hauekin:

- Bidaia gastuak: txartelaren prezioa.

- Norberaren autoaren erabilera: 0,29 euro/km.

- Ostatatzea: 100 euro eguneko

- Bazkaria/afaria: 21 euro

- Gosaria (baldin eta ostatuaren barruan sartuta ez badago): 6,30 euro.

b) Jardunaldia aurrera eramateko behar-beharrezkoa den materialaren gastuak.

c) Jardunaldiaren berariazko publizitate gastuak.

d) Ondasunak (intalazioak, ekipoak…) alokatzeko gastuak, baldin eta ikastaroa egiteko espresuki erabiltzen badira.

e) Jardunaldiarekin loturik dauden gastu orokorrak (argindarra, ura, berogailua, telenonoa, etab.) eta kudeaketa gastuak.

Gastu orokorrek eta kudeaketa gastuek, idatz zati honetako a), b) eta c) letretan jasotzen diren gastuen baturaren % 10eko muga izango dute.

14.2.- Inola ere ez dira diruz lagunduko jardunaldiari atxikitako gonbitek sortzen dituzten gastuak (esaterako, gosariak, bazkariak edo afariak), aurreko 1. idatz zatian adierazi direnak salbu. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, opariak, eskuerakutsiak edo egin litekeen beste edozein eskuzabaltasun.

14.3.- Erakunde onuradunek jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) diruz lagundu daitekeela ulertuko da, erakunde haiek zerga aldetik konpentsatu ezin duten neurrian. Horretarako, eta aplikagarria

- Otros cursos: 5 puntos

c) Calidad de la Solicitud presentada (0 – 30 puntos)

Dentro de este apartado se valorará:

- Hasta 10 puntos: Según el grado de calidad de cumplimentación de los Impresos de Solicitud presentados.

- Hasta 5 puntos: Por la adecuada presentación, en plazo y forma, de la documentación referida a Certificados de estar al corriente con la Seguridad Social y con la Hacienda correspondiente a la Administración competente para aquellas entidades con domicilio social fuera de Álava.

- Los restantes 15 puntos se otorgarán en función de la adecuada presentación, en plazo y forma, de la documentación recogida en el artículo 10 anterior.

d) Incentivo de la igualdad entre mujeres y hombres (0 – 5 puntos)

Se otorgarán 5 puntos a aquellos cursos que promuevan una proporción de mujeres comprendida entre unos límites del 40 por ciento y 60 por ciento sobre el alumnado total, ambos inclusive.

Los cursos que se inicien con posterioridad a la aprobación de las Bases incluirán su previsión de participación de mujeres en la solicitud. En caso de que esa previsión no se cumpla y la puntuación otorgada como incentivo para la igualdad hubiera resultado determinante para la concesión de la subvención, ésta será anulada.

Los cursos que hayan sido iniciados antes de la aprobación de las Bases, deberán especificar la proporción real de mujeres sobre el total del alumnado en el Certificado de Inicio del Curso.

CAPITULO III

JORNADAS DE DIFUSIÓN

**Artículo 12.– Actividades susceptibles de ayuda.**

Será susceptible de ayuda la realización de Jornadas de Difusión relacionadas con las nuevas tecnologías, herramientas de gestión o la actividad industrial o de servicios conexos con la industria.

**Artículo 13.– Periodo de realización de las actividades.**

Las actividades objeto de subvención deberán ser realizadas entre el 1 de enero de 2014 y el 15 de noviembre de 2014.

**Artículo 14.– Gastos subvencionables.**

14.1.- Serán gastos subvencionables únicamente los siguientes:

a) Gastos correspondientes a la persona ponente:

- Honorarios de la ponencia

- Si los hubiere, gastos de desplazamiento, manutención y alojamiento, con los siguientes límites:

- Gastos de viaje: importe del billete o pasaje.

- Uso del coche particular: 0,29 euros/km

- Alojamiento: 100 euros/día

- Almuerzo/cena: 21 euros

- Desayuno (siempre que no esté incluido en el alojamiento): 6,30 euros.

b) Gastos de material estrictamente necesario para el desarrollo de la jornada.

c) Gastos de publicidad específicos de la jornada.

d) Gastos de alquiler de bienes (instalaciones, equipos, …), cuando se utilicen expresamente para la realización de la jornada.

e) Gastos generales (luz, agua, calefacción, teléfono, etc…) y de gestión relacionados con la jornada.

Los gastos generales y de gestión tendrán como límite un 10 por ciento de la suma de los gastos recogidos en las letras a), b) y c) de este apartado.

14.2.- En ningún caso serán subvencionables gastos correspondientes a invitaciones anexas a la jornada, tales como desayunos, comidas o cenas, salvo los señalados en el apartado 1 anterior. Asimismo tampoco serán subvecionables regalos u obsequios o cualquier otra liberalidad en que se pudiera incurrir.

14.3.- El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) soportado en el coste por las entidades beneficiarias, se considerará subvencionable en la medida en que no pueda ser compensado fiscalmente por

den kasuetan, erreferentzia bezala hartuko da aurreko azken ekitaldiko behin betiko prorrata. Zalantzarik izanez gero, BEZa ez da diruz laguntzekoa izango, nola eta erakunde onuradunak ez badu frogatzen horren kenkaria ezin dezakeela egin.

**15. artikulua.– Jardunaldiko diruz lagundu daitekeen aurrekontua.**

Jardunaldiko diruz lagundu daitekeen aurrekontua ondoko kopuru hauetan txikiena izango da:

- Diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoa (14. artikuluan araututa daude).

- Orduko 300 euro aplikatuta ateratzen dena.

**16. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak.**

16.1.- Jardunaldi bakoitzeko emango den laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 80 izango da, ondoko muga hauekin:

- diruz lagundu daitezkeen gastuak ken aurrez jotako diru sarrerak.

- 1.500,00 euro.

16.2.- Ez da dirulaguntzarik emango diruz lagundu daitezkeen gastuak 400 euro baino gutxiagokoak diren jardunaldietarako. Jardunaldia burutu eta gero, diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoa 400 euro baino txikiagoa izatekotan, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo da, eta hura ez da ordainduko.

**17. artikulua.- Jardunaldi bakoitzerako aurkeztu beharreko agiriak.**

Behar bezala bete beharko dira dirulaguntza eskatzeko inprimakiak.

Gainera, ondoko agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Jardunaldiaren edukia azaltzen duen txostena

- Haren egitaraua

- Txostengileen curriculumak

**18. artikulua.– Aukeraketa eta balorazio irizpideak.**

Balorazio irizpide hauek izango dira:

a) Jardunaldiaren justifikazioa (0 – 50 puntu). Kontuan hartuko dira enpresen eta lan merkatuaren beharrizanak eta eskaerak.

b) Aurkeztutako eskaeraren kalitatea eta edukia (0-40 puntu).

Atal honen barruan, honela baloratuko da:

- 10 puntutaraino: Aurkeztutako eskabide inprimakiak beteta dauden kalitate mailaren arabera.

- 5 puntutaraino: Gizarte Segurantzarekin eta administrazio eskudunaren Ogasunarekin egunean egotearen ziurtagiriekin loturiko dokumentazioa epe eta era egokietan aurkezteagatik, sozietatearen egoitza Arabatik kanpoan duten erakundeentzat.

- Gainerako 25 puntuak, aurreko 15. artikuluan jasotzen diren agiriak epe eta era egokietan aurkeztu diren kontuan hartuta emango dira.

c) Beste ezaugarri batzuk: (0-10 puntu). Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustaten duten jardunaldietarako emango dira.

IV. KAPITULUA

AZTERLAN DIAGNOSTIKOAK

**19. artikulua.– Laguntza jaso dezaketen jarduerak.**

Kapitulu honen barruan, laguntza jaso ahal izango da ondoko jarduera hauek egiteko:

a) Sektore, eskualde edo lurralde eremuko azterlan diagnostikoak kontratatzea, industria enpresetako edo industriarekin lotutako zerbitzuetako plantillen kualifikazio beharrizanak zehazteko asmoz.

b) Erakunde eskatzaileko langileek azterlan diagnostikoak egitea, baldin eta haien helburua industria enpresetako nahiz industriarekin lotutako zerbitzuetako plantillen kualifikazio beharrizanak zehaztea bada.

estas. A estos efectos y en los casos que resulte aplicable, se tomará como referencia la prorrata definitiva del ejercicio inmediato anterior. En caso de duda, el IVA no será subvencionable, salvo que la entidad beneficiaria pueda demostrar efectivamente que no se lo puede deducir.

**Artículo 15.– Presupuesto subvencionable por jornada.**

El presupuesto subvencionable por jornada será la menor de las siguientes cantidades:

- El importe de los gastos subvencionables, regulados en el artículo 14.

- La que resulte de aplicar el módulo de 300 euros/hora.

**Artículo 16.– Cuantías y Límites de las ayudas.**

16.1.- La cuantía de ayuda a conceder por cada jornada será un 80 por ciento del presupuesto subvencionable con los siguientes límites:

- gastos subvencionables menos ingresos previstos.

- 1.500,00 euros.

16.2.- No se concederán subvenciones para jornadas con unos gastos subvencionables inferiores a 400 euros. Una vez realizada la jornada, en el caso de que el importe de los gastos subvencionables sea inferior a 400 euros se perderá el derecho a la subvención y no se abonará la misma.

**Artículo 17.– Documentación a presentar por cada una de las jornadas.**

Se deberá cumplimentar correctamente los impresos de solicitud de la subvención.

Además, deberá presentarse la siguiente documentación:

- Informe explicativo del contenido de la jornada

- Programa de la misma

- Currículum del personal ponente

**Artículo 18.– Criterios de selección y valoración.**

Serán criterios de valoración:

a) Justificación de la Jornada (0-50 puntos). Se tendrá en cuenta las necesidades y demandas de las empresas y del mercado de trabajo.

b) Calidad y contenido de la solicitud presentada (0-40 puntos).

Dentro de este apartado se valorará:

- Hasta 10 puntos: Según el grado de calidad de cumplimentación de los Impresos de Solicitud presentados.

